

NUR ETA OLENTZERO – TOTI MARTINEZ DE LEZEA



SINOPSIS:

Gaur da GAU HANDIA: gaur gauean etorriko da Olentzero! Nurrek gutun bat idatzi dio patinete zilar-kolore bat eskatuz, baina oraindik ordu asko falta da gaura arte, eta eguna luzea egiten da, oso-oso luzea. Aititak eta Nurrek Eguberriko arbola jarri dute, eta zoragarria geratu da, bolez, izarrez eta txilinez betea; eta, garrantzitsuena, hamabi galtxagorri ipini dituzte, amak eta Nurrek Txinan erosi zituztenak, denak gorritz jantziak, denak bereziak. Gero, Nur korrika joan da Luzia eta Sara bere lehengusinen eta beste lagunen bila. Sekulako gauzak daukate elkarri kontatzeko! Bakoitzak opari bat eskatu dio Olentzerori. Ufa! Olentzero Larrabetzura iristen denean, Nurrek eta besteek plazaraino lagunduko diote, eta izango dute berarekin hitz egiteko aukera ere. Nurrek badaki zer galdetuko dion: non bizi den nahi du jakin, eta ea bisita egitera joan daitekeen.